



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urtarrilaren 27a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, zeinaren bidez indarraldia luzatzen baitzaio 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeari, eta aldaketak egiten baitzaizkio. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Landa-eremuetako Emakumeen Estatutuari buruzkoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (6. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

- Lege proposamena, Erljio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (7. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna landa-ingurunean bultzatuko duten berriazko zenbait ekintza jaso ditzan Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zuzenean eta baliabide berekiekin eman dezan etxeko errehabilitazioaren zerbitzua. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala bete dezan Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17. artikulua 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoa. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da jaioberrien baheketa zabaldua ezar dezan. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tren-txartelak saltzeko leihatilen itxierak ukitutako udalekin batera lan egin dezan konponbide bat aurkitzeko eta horiek ADIFI nahiz Renferi egindako eskariak bideratzeko. Mozioa erretiratzea (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urtarrilaren 16an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruzkoa

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezten, hori guztia foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentuari behar zaizkio igorri, dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu egin beharreko tramiteak 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruz, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatuta dago Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 157. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezkoa da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Nafarroako 2018ko kontu orokorrak onesten dira, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontuen edukia Nafarroako Atarian emanen da argitara.

Foru Legea, zeinaren bidez indarraldia luzatzen baitzaio 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeari, eta aldaketak egiten baitzaizkio.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urtarrilaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, zeinaren bidez indarraldia luzatzen baitzaio 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeari, eta aldaketak egiten baitzaizkio”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez indarraldia luzatzen baitzaio 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeari, eta aldaketak egiten baitzaizkio

HITZAURREA

Nafarroak toki administrazioaren arloan duen eskumen historikoa baliatuz eman zen Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Aipatutako arauaren 61.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta toki entitateekin lankidetzan aritzeko tresna gisa, Nafarroako Gobernuak, kasuko gaikuntza egiten duen foru legearen esparruan, inbertsio planak ezartzen ditu, helburu nagusitzat dutenak Foru Komunitatearen lurralde osoan nahitaezko udal zerbitzuak bermatzea.

Agindu horretan xedatutakoa aplikatuz eman zen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena, 100 milioi euroko aurrekontu zuzkidurarekin.

2017-2019 aldiko ekitaldietako bakoitzean, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak geroko ekitaldien kargurako gastua baimentzen eta konprometitzen du, kasu bakoitzean finkatutako urtealdi-mugak gainditu gabe; konpromiso ekonomikoak ordainketen aurreikuspenaren eta lanen exekuzioaren arabera egotzen dira.

Betetzeko dauden konpromisoen egozpenerako eta betebeharren tramitazioarako egungo aurreikuspenekin, ikusten da ezinezkoa izan dela 2019ko ekitaldian bukatzea 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean jasotako obrak.

Bestalde, foru legean ezarrita dagoenez, konpromiso horiei erantzuteko behar diren zenbatekoak bermatuta daudenean, beste jarduketa batzuei helduko zaie, erreserban dauden inbertsioen lehentasun ordenari jarraikiz, eta horrez gain litekeena da presako lanak egiteko eskaerei ere aurre egin behar izatea.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da luzatzea 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen indarraldia, eta horrela aukera emanen da, plan berri bat onetsi arte, indarreko planean sartutako inbertsio finantzarri guztien konpromisoak baimendu eta egozteko eta ordainketak egiteko.

Lehen artikulua. Indarraldia luzatzea 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeari.

Indarraldia luzatzen zaio 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeari, eta horrela aukera ematen da indarreko Toki Inbertsioen Planean sartutako inbertsio finantzarri guztien gastu konpromisoak baimendu eta egozteko, bai eta ordainketa-betebeharrak betetzeko ere, plan berri bat onetsi arte.

Bigarren artikulua. Aldaketak egitea abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeari, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duenari.

1. Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeko 22. artikuluko 4. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“4. Obrak aurreko apartatueta ezarritako epeetatik kanpo hasten badira, zehapenak ezartzen ahalko dira diskrezionalki, non ez den salbuespeneko baimen berezirik ematen, toki entitateak frogatzen dituen arrazoiak egoteagatik, interes publikoaren mesedetan obrak atzeratzera behartzen dutenak, edo partikularrei eraginak ekartzeagatik, betiere inbertsioaren norakoa eta helburua babesturik. Zehapen horiek eskala hauetan jasotakoak dira:

– Epez kanpo hastea, gehienez ere 15 eguneko atzerapenaz: gehieneko diru-ekarpenaren %10.

– Epez kanpo hastea, gehienez ere hilabeteko atzerapenaz: gehieneko diru-ekarpenaren %20.

– Epez kanpo hastea, gehienez ere bi hilabeteko atzerapenaz: gehieneko diru-ekarpenaren %50.

Obrak bi hilabetetik gorako atzerapenaz hasten badira, obra osoki utziko da inbertsio-planetik kanpo, foru legearen 27. artikuluan adierazten den moduan.

Gehieneko diru-ekarpenaren gutxitzea artikuluko honetan xedatutakoari jarraituz egiteko, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emanen du, toki entitate interesdunari 10 egun baliodunetz entzunaldia emanen dion espediente egokia tramitatu ondoren”.

2. Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeko 24. artikuluko 5. eta 6. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“5. Obra amaieraren ondoriozko ordainketarako eskaera, IV. eranskineko 5. ataleko C) letran eskatutako dokumentazioarekin batera, hilabeteko epean aurkeztu beharko da, obrak xede duen erabilera publikorako entregatu daitekeela frogatzen duen harrera-aktaren dataren biharamunetik kontatzen hasita, are enpresa kontratistaren adostasunik ez dagoenean ere.

Obra-amaieraren justifikazio-agiriak epez kanpo aurkezteak honako eskalan jasotzen diren zehapenak ezartzea ekartzen ahalko du diskrezionalki:

– Epez kanpo justifikatzea, gehienez ere 15 eguneko atzerapenaz: obraren amaierako ordainketari dagokion ekarpenaren %5.

– Epez kanpo justifikatzea, gehienez ere hilabeteko atzerapenaz: obraren amaierako ordainketari dagokion ekarpenaren %10.

– Epez kanpo justifikatzea, gehienez ere bi hilabeteko atzerapenaz: obraren amaierako ordainketari dagokion ekarpenaren %15.

– Justifikazio-agiria epez kanpo aurkeztea, bi hilabete baino gehiagoko atzerapenaz: obraren amaierako ordainketari dagokion ekarpenaren %20.

6. Obraren amaierako ordainketari dagokion ekarpenaren gutxitzea aurreko apartatuari jarraituz egiteko, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emanen du, toki entitate interesdunari 10 egun baliodunetz entzunaldia emanen dion espediente egokia tramitatu ondoren”.

Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra.

Foru lege honetan aurreikusitako zehapen-araubidearen aldaketak hark indarra hartu aurretik hasitako prozedurei aplikatuko zaizkie baldin eta araubide juridikoa aurreko araudiak ezarritakoa baino mesedegarriagoa baldin bada.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2020ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urtarrilaren 16an egindako bileran, erabaki du aintzat ez hartzea Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena, zeina Navarra Suma talde parla-

mentarioak aurkeztu baitzuen eta 2019ko azaroaren 22ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroako Landa-eremuetako Emakumeen Estatutuari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urtarrilaren 16an egindako bileran, erabaki du aintzat ez hartzea Nafarroako Landa-eremuetako Emakumeen Estatutuari buruzko Foru Lege proposamena, zeina Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2019ko

abenduaren 16ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, ezetsi egin du Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa erlijioaren irakaskuntzari dagokionez aldatzeko Lege proposamena.

Erabaki hau argitara dadin agintzen da, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114.1 artikulua xedatutakoa betez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna landa-ingurunean bultzatuko duten berariazko zenbait ekintza jaso ditzan Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urtarrilaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna landa-ingurunean bultzatuko duten berariazko zenbait ekintza jaso ditzan Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna landa-ingurunean bultzatuko duten berariazko zenbait ekintza jaso ditzan Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoan, zeina apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren araberak taxutzen ari den; hartara, gutxienez honako jarduketak ardatz hauek garatuko dira:

1.- Emakumeak eta gizonak nekazaritza-ustategietan titularkideak izan daitezen sustatzea, nekazaritzako ustategien titulartasuna partekatzeari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legearen ezarpen eraginkorra sustatuz.

2.- Jarduerak sustatzea enplegua sortzeko eta landa inguruneako emakumeek enplegu bat lortzea aldezteko.

3.- Landa inguruneako emakumeen prestakuntza bultzatzea.

4.- Generoko arrakala digitala deuseztatzen laguntzea eta landa inguruneako emakumeek informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako sarbidea izan dezaten bultzatzea.

5.- Parekidetasuna arautzea emakumeek enpresen eta elkarteetan zuzendaritza-organoetan duten partaidetzan.

6.- Emakumeek eta gizonen nekazaritza-erakundeetan erabakitze-organoetan ordezkariak izan dezaten sustatzea.

7.- Landa-eremuko emakumeen lana ikusgai egiteko aukera ematen duten sentsibilizazio ekintzak abiaraztea.

8.- Familia eta lana bateragarriak izan daitezen sustatzea, haurrei, zaharrei eta mendetasuna duten pertsonen laguntzekoak diren hurbiltasuneko sareen eta gizarte zerbitzuen sareen bidez.

9.- Indartzea emakume ekintzaileen enpresa-ekimenak eta emakumeek sustatutako nekazaritza- edo abeltzaintza-garapenerako jarduerak.

10.- Berariazko ekintzak egitea, landa-inguruneako genero-indarkeria ekiditeko”.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zuzenean eta baliabide berekiekin eman dezan etxeko errehabilitazioaren zerbitzua.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urtarrilaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da zuzenean eta baliabide berekiekin eman dezan etxeko errehabilitazioaren zerbitzua”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du zuzenean eta Osasunbidearen baliabide berekiekin eman dezan etxeko errehabilitazioaren zerbitzua.

2. Salbuespen gisa, estaldura zaila duten landa-eremuetan eta/edo sakabanatuetan, lurralde-ekitatearen irizpidea kontuan hartuta, aldi bate-

rako lizitatu ahal izanen da eremu horietako enprekin edo profesionalekin, halako moduz non enpleguari eustea sustatu eta bultzatuko baita, betiere zerbitzua arrazoizko epe batean bitarteko propioekin emateko borondatearekin, eta horretarako, neurri egokiak hartuko dira.

3. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du osasun-zerbitzurik ez pribatizatzeko konpromisoa har dezan, eta, subsidiarotasun-printzipioa eta sistema publikoaren aldeko apustua gidari harturik, enpresa pribatuekiko hitzarmen eta kontratu guztiak berrius ditzan, jada pribatizaturik dauden zerbitzuak sektore publikoarentzat berreskuratze aldera, ahal den neurrian”.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala bete dezan Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17. artikularen 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urtarrilaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala bete dezan Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17. artikularen 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala bete dezan Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17. artikularen 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoa”.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da jaioberrien baheketa zabaldua ezar dezan.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: "Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da jaioberrien baheketa zabaldua ezar dezan. Mozioa Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu

baitzuen eta 2020ko urtarrilaren 10eko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tren-txartelak saltzeko leihatilen itxierak ukitutako udalekin batera lan egin dezan konponbide bat aurkitzeko eta horiek ADIFI nahiz Renferi egindako eskariak bideratzeko.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen tren-txartelak saltzeko leihatilen itxierak ukitutako udalekin batera lan egin zezan konponbide bat aurkitzeko eta horiek

ADIFI nahiz Renferi egindako eskariak bideratzeko. Mozioa 2020ko urtarrilaren 14ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

